

## Familien kontakizun gurutzatuak

Oiartzunen tropa frankistak sartu eta astebetera 200 lagunetik gora atxilotu zituzten, 5.000 biztanle inguru zituen herri txiki honetan 8.000 militar sartu eta hostatu hartu zuten, herri osoa okupatua izan zen. Oiartzungo kanposantua, Hernaniko bezala, ezaguna egin zen bertan Gipuzkoa eta Nafarroako herrietatik eramandako gizasemeak fusilatuak izan zirelako, guztira 117 lagunek aurkitu zuten heriotza kanposantuko paretetan. Gauaren isiltasunean eta kanposantuaren hurbiltasunean, “tiro de gracia” delako bakoitzaren oihartzunak etxe guztietako sukaldeetako paretak jo zituen, zuzenean hezurretaraino iritsiko zen beldurrez zeharkatuz Oiartzungo herritarrak. Aurrerantzean etxeko sukaldea oroitzapen gogor eta maitatuen gordelekua bilakatu, isiltasunaren leihoen bestaldean etxekoen berotasunean babestuz.

(Sarrera aurkezlearen gidoiarekin osatu daiteke)

### **Leoncio Aramburu Aguirre** (*Carmen Baraibarren bilobaren (sobrina-nieta) -Niniren -hitzetan*)

Leoncio Aramburu Miren tabernaren aldamenin, San Juan 33 kalin Baraibar-eniako alaba zen Carmen Baraibarrekin ezkondua zegoen. Ezkondutakuan Mendiburu kaleko Leoncioren etxera bizitzera joan zin, semeik ez zittuzten baina beraien iloba zen Maria Josefa Baraibar, nire amatxo akordatzen da, haurrak asko matte zittula eta bereziki bere ilobak izugarri matte zittula. Amatek gogoan du, beraiekin barre eta barre itten tzula eta nola adibidez Pikabea Jauregira eamaten zittuen bertako kolunpioetan jostatzerara.

Uztailak 27an Beorlegui koronelaren tropak Oiartzunen sartu zinin, 200 pertsona inguru atxilotu zittuzten. “Consejo de Guerra” egin zieten eta horretan Leoncio absolbitua izan zen. Baina uztailak 30in, herriko lau bizilagunen denuntzien ondoren, Leoncio Udaleko kide gehienekin eta Oiartzungo Alderdi Jeltzaleko kide askokin batea atxilotua izan zen, gaua Udaletxeko kalabojoetan pasiaz. Uztailak 31in eta beste oiartzuar batzuekin batea, Iruñako San Kristobal fortera eamana izan zen, lehenbizi oinez Beraraino eta ondoren

kamioyetan. Leoncio espetxeratu eta Carmeni Mendiburu kaleko berayen etxea kendu zioten, ordun bere familiaren etxera bueltatu behar izan zun.

Leonciok kartzelatik bidalitako kartai esker jakin izan dugu urte haitako abuztuan berayekin batea: Leoncioren laguna zen Angel Arizmendi, Feliciano Belderrain, Manuel Irigoyen, Angel Urreolabeitia eta Lucio Gallastegi ere bertan atxilotuak zila.

#### **Pamplona, Fuerte de San Cristobal, 18-8-36:**

*"Todos los de Oyarzun estamos bien. Puedes decir a la familia de Arizmendi que Ángel se encuentra bien y que por noticias que nos ha dado Lucio Gallastegi también sabe que dicha familia se encuentra sin novedad, lo que celebra mucho. Feliciano Beldarrain y Ángel Urruolabeitia han sido puestos en libertad."*

Bere bihotzeko Carmeni idatzitako karta guztitan, bere aurkako karguik ez zeola errepikatzen zion, beraz bere askatasuna lortzeko bertzen guztia itteko eskatzen zion; batekin hitz ittia, bestia bixitatzea jotia...

#### **Fuerte de San Cristobal, Pamplona, 21-8-36:**

"Como te dije en la visita no dejes de la mano el asunto de mi libertad. Tengo el presentimiento de que mi detención obedece al motivo de que nadie se ha ocupado hasta ahora de mí y a ver si tú con las gestiones que has iniciado consigues algo." Carmenek batekin eta bestearekin hitz egin zuen, bai eta epailearen aurrean bere gizonaren alde hitz egin ere, bere senarraren errugabetasuna frogatzen saiatu zen . Baina azkenean ez zuen lortu.

Hala ere, 1936ko urriak 16an Leonciok bere azken karta izango zena bidali zion Carmeni.

#### **16 de octubre de 1936**

*" Mi querida Carmen: Llevé una sorpresa agradable el martes último con la visita que me hiciste con la Ana Mari. No esperaba que hubieras venido tan pronto a pesar de que me lo decías en tu última. Me hiciste la impresión de que estabas más delgada aunque la ropa negra también podría influir en ello. ... Yo, sin novedad, gracias a Dios.... Para mandarme cualquier encargo te quiero advertir que el autobús del Fuerte sale de Pamplona todos los días a las doce del mediodía de la plaza o calle de San Lorenzo, de modo que dirigiendo a esta casa (que supongo, conocerá Inocencia) se puede recibir sin dificultad cualquier encargo. El día que pienses venir de visita puedes traerme un cepillo de ropa usado y un espejito pequeño de los de anuncio. Espejos grandes no admiten"*

1936ko urrian 25in, "Cristo Rey" egunian, goizian goiz Angel Arizmendi eta osaba Leonciori aske uzten zittuztela esan zieten. Pozaren pozez Oiartzungo beste presoak besarkatuz despeditu ziren ... BESARKADAK, ESKUMINAK!!!!

Dirudienez kamiora iyo eta kontrako direkziyun eraman zittuzten. Lizarrarako bidian dagon Izurzu herryan parian, kamiotik jaitsi arazi zittuzten eta aitortza itteko apaiz bat nahi ote zuten galdetu zieten. Dakigunaren arabera, Angelek bere aitortza in , apaizairi bere arrosariyoko gurutzea eman ta bere familiarekin harremanetan jartzeko eskatu ziyola, beraiek gertatutakoaren berri izan zezaten. Apaizak, bi urte behar izan zittun Oiartzunera hurbiltzeko adorea biltzeko eta familiari gertatutakuaren berri emateko: apaizak esan omen zien Angel eta Leoncio pertsona onak ematen zutela eta pakean hil ziela.

Handik gutxira, San Kristobal forteko barberuaren bitartez, Leoncio eta Angel fusilatuak izan zienaren zurrumurrua zabaltzen hasi zen. Luzio Gallastegik Manuel Irigoyen Mitxelenari esan zion, baina honek ez zion xinistu eta horrela erantzun omen zion: *"nola hilko ttuzte? Hauek Pamplonan dia txuleta eder bat jaten"*

Izeba Carmen, osaba Leoncio fusilatu zutenaren berri izan zunin, denuntzianteeetako baten etxea korrika jon eta hala esan zion: *"Hil dute, hil dute!! Ikustentzu ze in duzun ?"*

Eta salatzailliak erantzun zion: "Berriz in berko banu, berdin ingo nuke"

Gizon honek indakoaren ordainetan pisuzko kargua izan zuen ondorengo Udaletxian.

Arizmendi familiak esan digunaren arabera, fusilatu zittuztenek ez zuten gorpuak ondo enterratzeko denboraik izan, Cristo Rey eguna izanta mezetara berandu iristen zielako eta Iberoko meikuari esker, gorpuak non zien jakin ahal izan zutela. Angel Arizmendiren familiyak gorpuak enterratuk zien tokia ,hesi batez inguratu zuten, eremu hori goldiatu izan ez zedin eta urte luzetan, garaiko 100 pesetako errenta pagatu zuten, egunen batean beraien atta eta haren lagunai lur-emate kristau bat itteko esperantzarekin.

Urte batzuk geo, ixilpian eta ezkutuan, Angel Arizmendiren alaba zaharrena, bere launik hobenakin eta Leoncioren anai ordea zen Carlos Ttenterekin batea, Izurzura jon eta gorpuak lurpetik atera zittuzten. Angelen gorpu oso osua aurkittu zuten, ezautzeko erraza eta lepoan gurutzerik gabeko arrosayuarekin.

Carlos Ttente, erabat hondatua aurkitu zuten Leoncioren gorpuaren gainian zegoen luma estilografikoa ezautu ta rekuerdo bezela eamatia pentsatu zun. Baina luma ikuttutakuan atzamar artian desein zittaion, autsa biurtuz. Manolo Baraibar, nere attona, gauaren babesian Aramburutarren panteoya irekita zeukala zai zegoen Oiartzunen eta isilpean , hilleta-elizkizunik gabe lurperatu zuten.

Leoncioren fusilamentua eta gero, Leonciori 50.000 pezetako multa jarri zioten eta Carmen Baraibbarri, orduan Emakumetako lehendakari ordia zenai, 2000 pezetakua eta etxeko mueble guztiak kendu zizkieten. Carmenen etxean Guardia zibil bat eta bere emaztia bizi ziren. Emaztea herriko plazan ibiltzen zen Carmenen soinekuak jantzita.

Carmen Baraibareniaira joan zen bizitzea , Manolo eta Paquita, nere aiton- amonekin.

Denuntzien bigarren bolada hasi zenin, Carmen Tudelara bialtzia erabaki zuten, Leoncioren arreba zen Inozentziren etxera. Baina hara ere bere bila joan zitzaizkion eta kamio batian atxilotua, Ondarretako kartzelara eraman zuten. Bidai osuan beldurrak akabatua pasa zun Leonciori indako berdina ingo ziotenaren beldurrez.

Ondarretako kartzelan hilabete ta erdi egon zen.

Orduz geroztik, Carmen Baraibar beltzez jantzitako emakumea izan zen, beti bere iloben babespian bizitu izan zena.

## **Manuel Irigoyen Mitxelena** (*Miren Irigoien bere ilobaren hitzetan*)

1936ko uztailean, frankistek, duela 83 urte, gaurko egunarekin Oiartzun hartu zutenean, attona Manuelek 43 urte zituen eta EAJko zinegotzia zen, Udaleko bigarren alkateordea. Bera eta beste zinegotziak eta alkatea, Lesakan barrena, Iruñeko San Cristobal espetxera eraman zituzten. Attonak handik bidali zituen 5 karta ditugu. Zati batzuk irakurriko ditut:

### **1.- Fortaleza San Cristóbal, 18 de agosto de 1936**

"No escribir, porque yo no creo que ha de prolongar esto mucho, porque como sabéis, no he tenido la mínima participación".

### **2. karta irailaren 4koa da:**

"Desde el día 4 que fui detenido hasta la fecha no tengo ninguna noticia de la Felisa ni de los niños..."

### **3. urriaren 2koa:**

"Sobre la libertad de nosotros, tenemos buenas impresiones, y creo que están esperando los informes de ahí".

### **4. urriaren 20koa:**

"En la carta anterior te pedía las botas, la chaqueta de pana... Las botas me hacen mucha falta, porque cuando el patio está mojado no puedo salir de paseo".

"Cuántas veces nos acordamos de las chuletas y de la sidra. Supongo que ya habrá todavía en el lagar y guardarás algunas botellas, que buenas ganas tengo, Dios quiera que sea cuanto antes".

### **Eta 5. azaroaren 3koa:**

"Reza mucho por mi libertad, pues como sabes tú, no intervine en nada contra estos, ni tengo acusación alguna, y pueda reunir con mi familia. Quiera Dios que sea cuanto antes".

Attonaren anaia Xepeino ere San Cristóbalen eduki zuten preso. Beste anaia bat, Román, Ondarretan sartu zuten preso. Eta beste anaia bat, Salvador, apaiza, erbesteratuta egon zen Ávilan.

Attona atxilotuta eraman zutenean, etxean gelditu ziren emaztea, amona Felixa, eta lau seme txikiak: Jexux Mari, Koldo, Xabier eta Iñaki, 7, 5, 3 eta 1 urtekoak. Attona Manuel ez zen inoiz itzuli etxera. "En libertad"

atera zela esan zioten familiari, baina ez zen itzuli. Auskalo libre utzi zutenean nortzuk zituen zain, auskalo nora eraman eta hil zuten, eta auskalo non egongo den lurperatuta.

Nola bizi ote ziren aita eta senarra etxean izan gabe? Ez zen erraza izango haien bizimodua. Hitz egiten ote zuten gaiari buruz preso zegoen bitartean? Eta gero? Guri behintzat, attonaren bilobei, ez ziguten askorik kontatu horri buruz gure aitak eta osabek. Garai hartako ekintzen biktima gehienek bezala, isilik gorde zituzten beren sufrimendua eta mina.

Itzuli gaitezen gaur egunera, 2019ko uztailean, 83 urte geroago. 1936an mutil-koskorak ziren 4 haietako azkena, osaba Xabier, joan zen hilabetean hil zen, 86 urterekin, eta duela bi ordu pasatxo lurperatu ditugu bere errautsak. Lau mutiko haiek beren aitaren hezurak non dauden jakin gabe hil dira.

Eta une honetan hausnarketa bat egitera derrigortuta ikusten dut nire burua. Ez nuke nahi Oiartzungo Udaleko kideek beraiei zuzendutako kritika gisa ulertzea. Zuentzat esker oneko hitzak besterik ezin ditut esan, azkenean honelako errekonozimendua, omenaldia eta erreparazioa egin diozuelako eta diguzuelako, hura gertatu eta 83 urtera, Franco hil eta balizko demokrazia ezarri zenetik 44 urtera. Hausnarketa orokorragoa da, goragoko instantzietara zuzendua.

Normala al da, gurea bezalako herri garatu batean, hainbeste urte pasa behar izatea honelako zerbait egiteko? Zer-nolako paktua egin zuten trantsizioa deitu zuten garai hartan, 36ko Gerrari eta ondorengo diktadurari buruz ezer ez egiteko eta esateko? Noiz arteko iraupena jarri zioten pakto hari? Noiz arte edukiko dituzte kontu haiek ikertu eta plazaratu gabe? Gurekin, biktimekin, zorretan daude. Talde memorialistek jarraitu beharko al dute lanean eta presioa egiten? Kattin-Ttiki eta Txinparta.

Garai hura zuzenean bizitu zuten pertsonak joaten ari zaizkigu, eta gelditzen diren gutxietako batzuk, oso edadetuak direnez, burua galdua dute, edo, bestela, ez dute hitz egin nahi kontu haietaz. Espainiako erakundeei maiz egin dizkiete gai honi buruzko gomendioak eta eskaerak Nazio Batuen Erakundetik eta Europako erakundeetatik. Baina badirudi alferrik dela. Ikusi berriak gara, adibidez, zenbateko saltsa egon den Francoren gorpua Valle de los Caídos-etik atera nahi izateagatik, edo nola eman berri dioten Francoren bilobari "duquesa de Franco" titulua. Inork pentsatu al dezake Alemanian norbaitek "duque de Hitler" titulua edukiko lukeenik? Espainiako Estatuan gai honen inguruan gertatzen ari dena ez dakit nola izendatu, baina normala, behintzat, ez da. Eta halakoak ikusi eta entzutea oso mingarria da guretzat, frankismoaren biktima garenontzat.

"Egia, justizia eta erreparazioa" eskatzen dugu. Attonaren hezurak inoiz aurkituko ote dituzte, eta guri, familiari, itzuli? Ez dut uste, nik etsia hartua dut; attonaren hurrengo belaunaldia joan zaigu, 1936ko 4 mutil-koskor haiek ezin izan zuten jakin beren bizitza osoan. Bigarren belaunaldia ere, gu, adinean aurrera goaz, eta ez dut uste jakingo dugunik.

Baina, gutxien-gutxienez, erakunde publikoek eta alderdi politikoek ahalegin guztiak egin beharko lituzkete, beharrezkoak diren bitarteko guztiak jarrita, gertaera haiek guztiak ikertzeko, egon daitekeen arrastorik txikienari ere jarraitzeko eta zerbait gehiago jakiteko balio dezakeen ikusteko.

Bukatzeko, bi gauza Oiartzungo Udalari zuzenduak: batetik, berriz ere esker ona adierazi nahi diot gaurko ekitaldi honengatik; eta, bestetik, beste erakunde batzuek egin duten bezala, Argentinako epaitegietan frankismoaren aurkako kereila kriminala gure Udalak ere aurkezteko eskatu nahi diot Oiartzungo Udalari; Espainiako instantzietatik hain gutxi espero dezakegunez, ea hangoek zerbait egiten jarraitu dezaketen.

Egia, justizia eta erreparazioa eskatzen ditugu. Batzuek hilak eta, gainera, ahaztuak nahi dituzte. Guk ez ditugu inola ere ahaztuko.

Eskerrik asko.

**Feliciano Belderrain Aguirre** (*Jon Belderrain bere semearen hitzekin eta Kattin Txikiren informazioarekin osatua*)

Hona hemen Jon Belderrain bere semeari esker eta Kattin Txikik emandako informazioari esker osatu dugun memoria txikia.

Feliciano Belderrain Aguirre Oiartzunen jaio zen 1896an, Domingo Belderrain Galardi eta Manuela Ygnacia Aguirre Michelenaren semea. Zortzi senidetan azken aurrena izan zen. Valladoliden egin zituen ikasketak, Escuela Profesional de Comercio-n, urtebete eta bertako unibertsitatean medikuntza eta kirurgian lizentziatu zen 24 urterekin. Behin ikasketak bukatuta, praktikak Valladolideko medikuntza fakultatean eta Basurtuko ospitale santu zibilean (Bilbon) egin zituen.

Hondarribian aritu zen mediku lanetan: Ugazaben elkartean, karabineroetan eta sorospen-etxean. Gainera, herri honetako udal-mediku zirujau izendatu zuten 27 urterekin. Aipatzekoa da Miserikordia etxeo sorospen-gelan txiroei kirurgia zerbitzuak doan eskaintzen zizkiela.

Mediku gabinetea izan zuen bai Oiartzunen eta Donostiako Gros auzoan bere arreba Josefak zuen pisuan.

EAJko militantea eta Oiartzungo alkatea bi udal hauteskundeetan hautatua, Kontzertu ekonomikoaren eta autonomia-munizipalaren defentsa sutsua egin zuen. 1934ko uztailaren 5ean Bilbon ospatu zen, Euskadiko udalerrien batzarrean non batzarreko idazkari izendatua izan zen. Espainiako gobernua egitasmo hau ez zuen begi onez ikusi, eta gogor zigortu zituen.

Altxamendu faxistaren ondoren eta Udal ordezkari gehienak bezala uztailak 30ean atxilotua eta San Kristobalgotorlekura eramane zuten preso. Leoncio Arambururen gutun bati esker urte horretako abuztuan askatu zutela jakin dugu. Behin askatuta eta Alava sareari esker Dantxarineatik muga zeharkatzea lortu zuen Jose Cruz bere anaia apaizarekin batera. Oiartzunen Mari Cruz arreba soilik gelditu zen urteetan ultramarinosa izandakoa.

Iparralden Kanbon kokatu zen bere anaia Jose Cruz bezala. Bertan, Constant Colbert doktoreak eta bere emazteak Marie jaso zuten eta bere mediku titulua homologatzea lortu ez bazuen ere euren laguntzari esker mediku lanetan aritu zen bertan. Felicianoren asmoa Ameriketara joatea zen eta horretarako baimena lortu zuen, Telesforo de Monzon, Erri Zaintzako burukideak, sinaturiko Igarobidea edo Euskal pasaporteak adierazten duen bezala. Felicianoren igarobidean, gaur egun Jon bere seme zaharrenaren eskuetan, Republica Dominicanara bidaiatzeko bisatua onartua zuela ikusten da. Bordeleko Kotsulatuak dokumentu ofizial bezala onartutako Euskal Pasaportea. Baina azkenean, Colbert doktorearekin lanean honen biloba zena eta txofer lanetan aritzen zen Madeleine Bernard ezagutu, maitemindu eta 1941. urtean berarekin ezkondu zen. Beraz, Feliciano ez zen Ameriketara joan eta Kanbon sortu zuen bere familia.



Garai haietan iparraldean atzerrituak ziren beste euskaldunekin harremanetan zegoela eta norartino maitatua zenaren testigu, lagunek ezkondu zen egunean jarritako plaka dugu oroigarri:

...Hodei beltzetan eztali ginan  
gaur gera atzerrituak  
herriz herri ibili gera  
dirudigu ardi galduak:  
artzai onaren irudi zera  
kupi dituzu haulduak  
era txarretan negargarrietan  
senda dituzu gaixoak  
nola ez agertu betiko eskerrak!  
Dituzu ongi sarituak....

Atzerriratua bizitzea maiztasunez Ezpeletako Gendarmerian bisatua sinatzera joatea suposatzen zuen eta hala ibili zen hil zen arte. Feliciano Belderrain 1945eko urtarrilaren 27an hil zen Kanboko Eskualduna etxean, bi urtetako Jon semea utzita eta Andoni bidean, Madelein haurdun baitzen. Garai gogor haietan Madeleinek Colbert familiaren laguntza eta eskuzabaltasunari esker aurrera egitea lortu zuen. Gutxi da etxean eta familian gertatutakoaz hitz egindakoa, gutxi oroimen zuzenak, baina asko maitasunez gordetako oroimen aztarnak: igarobidea, famili liburua edo lagunak ezkonberriko oroigarria.

**Segundo Berrondo Retegi** (*Kattin txikiren informazioarekin eta Juan Mari Berrondo bere ilobaren hitzekin osatua*)

Segundo Berrondo aitona nor zen eta errepresioa nola bizitu izan zuenaren oroimena eta bizipena duela bi urte zendu zen bere azken semea Joxe Inazioarekin joan zen. Berak zituen gordeta oroitzapen eta bizipen hurbilenak eta Juan Mari bere semeak aipatu bezala berak oso gustura hartu izango luke ekitaldi hau bai eta aitaz hitz egiteko aukera ere. Baina, gaurkoan Kattin Txikik eskuratutako dokumentazioari esker eta Juan Mari bilobari esker Segundoren bizitzaren zati batzuk josteko aukera baliatu dugu. Bere oroimenaren izpi batzuk berreskuratu alegia.

Segundo Berrondo Ugaldetxoko Aranguren baserrikoa zen, Kontxexi Lasarterekin ezkondua eta sei seme alaben aita. Lanbidez baserritarra eta horretan aritzen zen. Tropa frankistak Oiartzunen sartu zirenean EAJko zinegotzia izateaz gain Euzko Nekazarien Bazkudearen partaidea ere bazen.

1936ko uztailaren azken egunetan, behin Udalbatza egotzia, bertako kideen atxiloketak hasitakoan Erreketeak Segundoren baserrira hurbildu ziren bera atxilotzeko asmotan. Bertara heldutakoan, bera ihes egin zuela ikusita Joxe Maria semeetan zaharrena, 18 urtekoa, hartu Endarlatsa aldera eraman eta bertan desagertarazi zuten. Omen ez zen bertan heriotza aurkitu zuen Oiartzuar bakarra, Jerónimo Etxeberria ere etxean preso hartu eta bertan tiroz hil baitzuten.

Bitartean, Segundok ihesi iparraldera pasatzea lortu zuen eta bertan Urruña aldean lau urte eman zituen, etxetik urrun emaztea bost seme-alaben ardurapean utzita. Badirudi, 1940. urtean etxera bueltatzea lortu zuela, baina ez isunik ordaindu gabe. Herriko apaiz baten laguntzari esker, "Tribunal Regional de responsabilidades Políticas"etik pasatu eta aurkitutako dokumentuen arabera honako zigorra jasan behar izan zuen etxera bueltatzeko:

*" Condenamos al inculpado Segundo Berrondo Retegi, como responsable político a que pague al Estado en concepto de indemnización de perjuicios la cantidad de cuatro mil pesetas. Así como le imponemos la sanción de inhabilitación para el desempeño de cargos de autoridad, mando y confianza en los organismos oficiales por tiempo de diez años."*

Isunak eta semearen heriotza zigor nahiko ez balira baserria, euren bizi modua ere rekisatu zieten. Urteetan familiak bertan bizitzeko eta lurrak lantzeko eskubidea izan bazuen bertatik ateratako emaitzak eman beharra zituzten, soilik etxeok bizi irauteko haina utziz. Tropak herria utzi ondoren, baserria berreskuratzea lortu zuten. Garai hartan, Pasaiaiko portuan egurra arraz erosten omen zen eta Segundok egurra moztu eta saltzen euren zena erosteko behar zituzten 8.000 pesetak biltzea lortu zuen.

Kattin Txikik aurkitutako azken dokumentu baten arabera 1944ko urrain Segundo Berrondo Oiartzungo beste herritar batzuekin batera Ondarretako kartzelara eramana izan ziren. Zenbat denbora egon zen, euren aurkako akusazioak zeintzuk ziren eta ondorengoak behar bada etorkizunean jakiteko aukera izango dugu. Gaur hau da osatzeko gai izan garen Segundo Berrondo eta familiaren memoria.

**Jerónimo Ugaldere Aroza** (*Nieves eta Javier bere seme-alabek idatzitako gutuna*)

Kaixo Aita,

Javier eta Nieves gea, zure seme-alabak.

Orain 83 urte, gaur bezalako egun batian, San Cristobaleneko kartzela eraman zintuzten zure ideiak defendatzeagatik, eta Oiartzunen sartu ziren tropek bezala ez pentsatzeagatik.

Etxean ama eta zortzi seme-alaba gelditu ziren, tartean Nievesek urte eta erdi zituela. Beldurrak jota gelditu ziren, zer egin ez zekitela, hurrengo egunean nondik jan behar zuten ez zekitela. Baina, eskerrak gure auzoan jende ona bazela, eta ziztu bizian, hantxe igo zen Juaneneko Inaxi Zalakainen emazteagana zu askatzeko eskatzera.

Garai hartan familiak pasatako beldurrak ez digu utzi ezagutzen benetan zer pasa zen. Badakigu nola gure amak eta anai-arrebak Millene gure baserriko baratzean zure kartak irakurtzen nola egoten ziren negar batean. Edo badakigu, kamioneta gorri batean etorri zinela bueltan. Zorionez, zu bueltatu zinen, ez beste batzuk bezala.

Eskerrik asko garai latz haietan gure familia lagundu zuten guztiei, Juaneneko Inaxi eta Agustin, Arkaitzeko eta Kamiyoko familia eta gure dolumina handik bueltatu ez zirenen familiei. Aldi berean, mila esker udala gaurko omenaldi honengatik, oso estimatua da.

Aita, agian batzuk ahaztu nahiko dute, baina guk ez dugu ahaztu nahi pasa genituen garai latz horiek, eta gaurkoari esker beste askok ere jakingo dute zuk eta preso eramandako gainontzekoek pasa zutena.

Beti izango zaitugu bihotzean.

Muxu handi bat

Nieves eta Javier

## **Esteban Goienetxe Arozena** (*Mañoli Goienetxe Estebanen alabaren hitzetan*)

Hasteko, egun on guztioi, eta eskerrak eta zorionak eman ekitaldi honetara bildutako guztioi.

Nire aita, Esteban Goienetxe 1898an sortua zen, Ugaldetxoko Matteonen, zazpi anai-arrebako familian. 1936an frankistak Oiartzunen sartu eta gerra piztu zenean gizon heldua zen; 38 urte zituen. Irundarrenera ezkondu zen bertako alaba nire ama izango zen Nikolasa Urdanpilletarekin. Atxiloketa eta kartzelatzea gertatu zirenean ni hilabeteetako haurra nintzen, jaio berria, esateko.

Aitta oso gizon irekia zen, eta guztiei laguntzeko prest zegoena; iritzi politiko jakiñekoa eta alderdi jakiñekoa bazen ere, denentzako borondate onekoa. Gogoan dut ni gaztea nintzela nola behin baino gehiagotan deitzen zioten, halako baserritan edo halako etxetan behia umea egiteko zegoela eta laguntzera joateko, horretan ongi zekielako. Eta hantxe joaten zen ziztuan.

Lanari berea ematen zion: urteetan eta urteetan goizean goiz hasi eta ilunabarra arte aritu zen lanean zahartzaroak ezina ekarri zion arte. Garai haietan beste asko bezala, opor egunik gabe. Egun bakarren bat hartzen zuen urtean nirekin eta nire lehengusuren batekin egun pasa bat egiteko, han edo hemen: Donostian, kostan.

Gogoan dut hala berean nola, Altzibarren esneketariak, “letxeroak” aritzen ziren esnea gero han eta hemen, hirietan, Donostian saltzen egunero-egunero. Altzibarko plazan jende mugimendu handia izaten zen goiz-goizetik. Aitta ere goizean oso goiz hasten zen Irundarreneen ostatuan lanean esneketari eta baserritar haiei guztiei atenditzen, haiekin solasean eta haiekin harremanean.

1934n EAJ-PNVren zerrendan zinegotzi aurkeztu zen Oiartzungo udaletxerako eta baita hautatua izan ere. Gutxitan hitz egiten zuen politikan ibilitako eta zinegotzi izandako garaiez, baina behin baino gehiagotan kontatu izan zuen nola kontzejal zela interbenitu behar izan zuen herritarren artean gertatzen ziren abusuen kontra. Jaso nuen aitarengandik abusuaren, indarkeriaren kontrako jokaera duinaren eta zuzenaren berri.

Frankistek 1936an kolpea eman eta gerra piztu zutenean, aitta, askorik espero ez zuela, –beste asko bezala– atxilotu eta San Kristobalera eraman zuten.

Aitta eta bere taldeko zinegotziak eta alkatea, eta beste herritar mordoa, San Kristobalera eraman zituzten, baina Altzibarren, Irundarreneen geratu zirenek, nire ama, amona, izebek ere latzak pasatu zituzten –beste herritar askok bezala–. Militarrek Irundarrene –eta herrian beste etxe asko ere bai– berentzat ostatu hartu zuten frentea Oiartzunen egon zen bitartean, eta Irudarreneko familiak alde egin behar izan genuen babes bila mendi aldera. Orduan Irundarrenekoen ama zena, nire amona Manuela, Gorosketa baserrikoa zen izatez, eta hara joan zen nire ama ni hartuta, babes eta geriza bila, gainerako senideekin batera.

Auzoan, ordea, izan ziren horretan ere mina handitu nahi izan zutenak, eta, jakinik, nire ama Nikolasa oso sukaldari ona eta langilea zela –Irungo Hotel Palacen ikasia– Irundarrene berentzat hartua zuten militarrei adierazi zieten Nikolasa oso sukaldari ona zela eta berak egin zezakeela armada frankistako ofizialei Irundarrenen eguneko otorduak prestatzeko eta ostatua eramateko lana. Eta halaxe agindu zuen haien jefek: Nikolasa etorrarazteko segituan Gorosketatik Irundarreneera. Eta nire amak isil-isilik obeditu behar. Etorri eta militar haien zerbitzuan aritu behar izan zuen egunetan, asteetan, haien otorduak eta haientzat ostatua prestatzen, frentea Oiartzundik mugitu eta militarrek Irundarrenetik alde egin zuten arte. Askotan neka-neka eginda, leher eginda, eta osasuna aski egurtuta.

San Kristobalen kartzela sufritu, eta etxeratutakoan ere, gero, desterrua: Santanderrera.

Berriz ere, herritarren ezinikusiak, etsaigoak eta salaketak tarteko, desterrura bidali zuten aitta bolada baterako.

Santanderren familia baten etxean hartu zuen ostatu, gela bat, eta han bizi izan omen zen bolada luzean. Ez naiz gogoratzen lanik egiteko aukerarik izan zuen, lanik egiten utzi zioten, edo ostatua ordaindu beharko zuen. Badakit, ordea, familia harekin oso harreman ona egin zuela, eta aittak ahal zuen guztian laguntzen ziela: garai hartan etxea berotzeko oso eskas zen ikatza lortzen eta etxera ekartzen, konponketak egiten,... Kontua da desterruan bizi behar izan, eta, handik urteetara berriro Altzibarren, Irundarrenen bizi zenean, Santanderren aurkitu zuen etxe edo ostatu hartako familiakoek urtero-urtero idazten zizkioten gutunak aittari, eta baita aittak haiei ere. Oso oroitzapen ona utzi zuen santandertar familia haren baitan ere.

Desterrutik etxera itzuli zenean, familiako beste gorabehera batzuek Ameriketara eraman zuten, urte batzuetarako, han zituen senideen artera. Ordurako han zituen lau arreba eta anaia, Argentinan, Buenos Airesen.

Ameriketatik etxean bizi izatera itzuli zenerako nik hamar urte nituen, eta aitta, ia esateko ezezaguna nuen. Etxeratu zenean hasi nintzen benetan aitta ezagutzen.

Bizitzak hala ekartzen ditu gauzak, eta gaixotasunak ama, gure ondotik eraman zigun andre gaztea zela. Atsekabe handia izan zen gu biontzat: familia elkarrekin egotea lortu, eta, heriotzak ama gure ondotik eraman.

Altzibarko plazan, Irundarrene ondoko Beheko Ostatua etxearen –Irundarrenekoena hura ere– paretaren kontra egindako fusilamenduaren oroitzapenak ere bizi-bizirik iraun zuen, eta iraun du, gurean, Irundarrenen. Ni haurra nintzen; ez nuen ikusi, jakina. Baina gertatutakoaren oroitzapena belaunaldiz belaunaldi transmititu da Irundarrenen, isilpean, ahopean, Altzibarko beste etxe askotan bezala.

Aittak ez zuen gerran eta gerra ondoan gertatutakoaz hitz askorik egiten nire aurrean behintzat.

Bazituen, ordea, herritar eta lagunak aldian-aldian toki babesean garaiko egoeraz eta herriaren martxaz hitz egin eta kontuak berritzeko. Bere erara, munduaren eta herriaren martxari atxikita jarraitu zuen beti.

Oso bizirik dut gogoan aittak ez ziola kalterik egin iñori, ez ziola miñik egin iñori, ez zuela iñoiz iñorentzat asmo txarrik izan.

Aittak pasatutako sufrimendua ahaztu nahi zuen; ez gertatu zen guztia ahaztu, baiña bai sufrimendua. Ez zuen sufritutakoa gorrotoz eta mendeku gogoz luzatu nahi. Sufritutako guztiak ez zion aittari gorrotorik sortu, ez zion mendeku gogorik sortu bihotzean. Iñoiz ez zidan neri iñortaz gorrotoz, mendeku gogoz hitz egin. Ez ninduen ni gorroto giroan hazi eta hezi nahi izan, eta ez nuen gorroto eta mendekuzko hitzik iñoiz entzun etxean. Eta benetan eskertzen diot.

Bukatzeko: asko pasatu zuen aittak –beste gaiñerako zinegotzi eta alkateak bezala– egindako aukera politikoagatik eta Oiartzungo udalean herritarren ordezkari legitimoa izateagatik. Ez zuen halakorik merezi, ez zuten halakorik merezi. Gaur hemen ekitaldi honekin berritzen dugun haien oroitzapena eta egiten zaien omenaldia uste dut benetan merezi zituztela aittak eta gaiñerako guztiek. Bihotzez eskertzen dut, eta nire eta nire familiaren izenean zorionak eta eskerrik beroenak alkatetzari, udal-batzari eta omenaldi honetan parte hartu duzuen guztioi.

## **Luziano Aristizabal Etxeberria** ( *Imanol eta Jon Miner iloben hitzetan* )

Luziano bost anai arreben sendian jaio zen eta 31 urte zituela Aldako-xar baserriko Gabriela Portu Arorenarekin ezkondu zen. Berarekin bederatzi seme-alaba izan zituzten: Jabier, Iñaki, Joxe Mari, Arantxa, Jexux, Joxe, Itziar, Pepi eta Tomax. Euzko Nekazarien Bazkuna, ELA sindikatuaren ildoko baserritarren sindikatuko kidea izan zen, baserritarren orduko interesen aldeko defentsan lan eraginkorra eginez. Hain zuzen ere, San Isidro nekazari kooperatibaren sustatzaileetako bat izan zen. EAJko zinegotzia: 1933/04/23ko udal hauteskundeetan hautatua eta 1936/07/30ean atxilotzen duten arte. Beraz, demokraziaren defendatzailea, kolpistek indarrez eragotzi arte.

Lartaun elkartearen sortzaileetako bat 1963an. Lartaun Elkartea, Oiartzungo Kultura bizitzan ez ezik, bizitza politikoan eragin handikoa izan zen lehen hamarkada luzean, autonomiaren garaia abiatu arte. Garai beretsuan, Haurtzaro Ikastolako sortze prozesuan parte hartu zuen.

Moral erlijioso zurrun, puritano eta tradizionalistako gizona zen era berean, gizon modernoa zen, kulturaren eta euskararen ezagutzari, ideologia politikoari eta teknologiaren aurrerabideak integratzeari zegokionean: Kulturari zegokionean, gaztelaniaz ez ezik, euskaraz ere bai alfabetatua zegoen, orduko baserritarrengan ohikoa ez zena. Euskaltzale sutsua zen eta hizkuntza biziberritzearen auzian, Manuel Lekuonaren eta Euskarazaintzaren ildoen jarraitzailea izan zen, Euskara Batuaerakiko auzian h-aren aurka kokatuz. Baserrian, garaiko legeen kontran, gaztelaniaz egitea debekatu zuen, etxeko hizkuntza euskara izan zedin zainduz.

Ideologia politikoari zegokionean, EAJren orbitan jardun zuen ia bizitza osoan, eta EAJren banaketa garaian Eusko Alkartasunan kokatu zen Garaikoetxea zale gisa.

Teknologiaren aurrerabideari zegokionean aurrerabidearen aldekoa zen: gatzetatik autoa izan zuen, eta garbigailua asmatu zenean berehala erosi zuen, emaztea Gabrielaren gogoz kontra, bide batez.

Luziano bi gatibualdi ezagutu zituen, lehena espetxealdikoa eta bigarrena Batallón de Trabajadores izenekotean. Eta isun desberdinak ordaintzera behartua izan zen ardura politikoak egotzirik. Joxe Mari eta Tomax bere anaiak, kartzelan izan ziren ere bai. Ondoren, Joxe Mari BeheNafarroako Ortzaize herrira errefuxiatu zen.

36ko uztailak 30ean, esnea banatzera Donostiara bidean, Oiartzungo Lartzabal auzoan geldiarazi zuten. Bere aurrean esne guztia lurrera botata esne-marmitak hustu, autoa kendu eta espetxera eramane zuten. Nafarroako Espetxe Probintzialeko dokumentuen arabera egun Ezkaba bezala ezagutzen dugun gotorlekura, orduan San Cristobal bezala ezagutua zenera eramana izan zen eta bertan 8 hilabete inguru igaro zituen.



Luzianok Arkalen kontaktzen zuenaren arabera, harrizko lurrean egiten omen zuten lo, ez manta ez ezer gabe, soinean zuten arroparekin. Oso gogorra izan omen zen.

Bitartean, emaztea Gabriela, esnea banatzen zuten Donostiako etxeetako bezeroei bere senarra Luzianoren atxiloketaren berri ematera batetik, eta bestetik, esnerik gehiago ezin izango zutela banatu jakinaraztera joan zenean, Luzianorenganako estimua zuen bezeroetako batek bere senarra San Cristobaleko espetxeko zuzendaria zenez kontuan izango zutela jakinarazi zion. Gizon hark lortu omen zuen Luziano ez fusilatzea, *“honek sufri dezala, bere lagunak banan-banan nola erortzen diren ikusita”* esanez, lortu omen zuen bizirik atxikitzea, libre uztea lortu zuen arte. Libre utzi zutenean, hil egingo zutela uste izan omen zuen Luzianok, baina ez zen horrela izan .

Espetxean igarotakoak nahikoa ez, eta Oiartzunera bueltan, Gurutze auzoko sarrerara iritsi zenean, bera salatu zuen auzokoak sarkasmoz *“kanpoan / oporretan ongi ibili al haiz?”* galdetu omen zion. Luzianok erantzuna irentsi eta aurrera ixil-ixilik. Ordea, handik urteetara, auzoko salatzailea hil-urren zela, azken olioak ematera joan zen apaizari Arkaleko Luzianori deitzeko eskatu omen zion eta egin zuena aitortu. Horrela egiaztatu ahal izan zuen Luzianok bere salatzailea nor zuen eta hiltorian barkamena eskatu zionez, Luzianoren barkamenarekin lasai(ago) hil omen zen.

Luzianoren espetxealdian, emaztea Gabrielak aurrera atera behar izan zuen baserria eta ordurako zituen bi semeak, Jabier eta Iñaki, eta haurdunaldian zetorren hirugarrena, Joxe Mari. Donostian, etxez etxe ate-joka aritu behar izan zuen bere senarraren biziaren defentsan, behin baino gehiagotan erantzun iraingarriak ere jasoz. Beste behin, ejertzito kolpista bere kamioiekin baratza lapurtzera etorri zitzaion, patata uzta osoa eramanda. Oiloak ere kentzera zihoazela ikusita, Gabriela, haurdun sabela koxkortuarekin, oilategiaren atean jarri omen zen, irmo, oiloak eramatekotan hilda eraman beharko zituztela esanez. Nikolas, aitagarreba, leihotik arrenka kentzeko paretik eta uzteko oiloak ere eramaten, bestela hilko zutela, aritu omen zitzaion ijuka, baina alperrik, fusilarekin mehatxu egin zuten arren Gabrielak bereari eutsita lortu omen zuen oiloen lapurreta hura eragozte. Gabrielak ez zuen ideologia politikorik garatu.

Luziano askatu eta ondoren lau urte Bataillon de Trabajadoresen pasa zituen ahoz jasotako lekukotzen arabera Aritxulegiko bidea eta tunela egiten. Etxekoen arabera, Inazio Eizmendi Manterola “Basarri” bertsolaria ere *Trabajadoreetan* aritu zela kontaktzen zuen Luzianok.

Familiari dagokionean:

\* Seme gazteena, Tomax, ETA (Euskadi Ta Askatasuna) erakunde klandestinoan jardun zen 60. hamarkadako bigarren erditik aurrera frankismoaren amaierara arte, gutxi gora behera. Behin baino gehiagotan atxilotua, gutxienez bitan izan zen torturatua (1969an, 1974ean). 2000. hamarkadan, Madrazoren Ezker Batuan parte

hartu zuen Oiartzungo udaleko zinegotzi bezala; Ezker Batua utzi ondoren, bere bizitzako azken urteetan Euskal Herriko *Antikapitalistak* mugimenduan jardun zuen, *Podemos / Ahal dugu* alderdiaren sorrera ere gertutik jarraituz.

\* Gainontzeko seme-alabek ikuspegi abertzalea partekatu arren ez dute jarrera ideologizatuegirik garatu, batzuk eskuinerago eta besteak ezkererago kokatu arren. Hurrengo belaunaldien heziketari dagokionean euskarazko irakaskuntzaren eta ikastolen aldeko hautua orokorra izan da.

Gabrielak eta Luzianok bizitu eta kontatu zituztenak etxean zuzeneko eragina izan zuen hurrengo hamarkadetako bilakaeran. Hala ere, orduko kristau balioez eta fedez baliatuta, auzoko salatariaren senideen aurkako gorrotorik etxeakoengan ez transmititzea zaindu zuten beti.

### **Jose Inazio Odriozola Oiartzabal** (*Maite eta Geneveva biloben hitzetan*)

Jose Ignazio Odriozola Santusene baserrian sortua zen, Geneveva Izagirrerekin ezkondua hiru seme izan zituzten. 1936ko uztaileko azken egunetan atxilotua eta San Cristobaleko Fuertera eramana izan zen. San Cristobalen lau urte igaro zituen. Omen libre utziko zutela esaten zioten bakoitzean eta ziurrenik beste oiartzuar batuei gertatutakoaren berri izanik, libre atera nahi ez zuela esaten zuen. Behar bada horrek tiroz hiltzetik salbatuko zuen. Bitartean etxean emaztea hiru haurrekin gelditu zen, familia aurrera bakarrik ateratzen. Beste askok bezala, Jose Ignaziok ere etxera bueltatzeko isunak ordaindu behar izango zituen.

Hau da gaur egun, Jose Ignazioren biloben oroimenean gertakari horien inguruan gelditu den informazio apurra, aitona kartzelan izan zela bai, baina horren inguruko gertakariak ez dira etxean inoiz aipatu. Omen aitona bera ere bere ondorengo urteetan politika gaiak ez zituen etxean aipatzen, berez aitona 1936ko uztailean egotzitako Udaleko zinegotzia eta errejidorea zenaren berri ekitaldi hau antolatzerakoan izan du familiak. Honek urte latz haietan, beldurra herritar askoren bihotzetan nora artino errotu zenaren neurria ematen digu. Nora artino sufritutako guztia isiltasunaz estaltzeko beharra.

Jose Ignazio gazte hil zen 1968an eta berarekin lau urteetako espetxealdiak suposatutakoa, bai sufritutako guztia. Gaur isiltasun horri zirrikitu bat ireki nahi izan diogu.